

RUGBYA

Rugby profesionala onartu dute

XVeko Rugbyak bide berriak hartuko ditu profesionaltasunarekin.

International Board-ek horrela erabakita, rugbulariek eskubide osoa izango dute hemendik aurrera dirua legez jasotzeko, soldata, prima eta guzti. Hiru aste barru, Tokion bilduko dira Board eta kontseilari juridikoak arautegia finkatzeko. Nazioarteko Federaziokideak ere ezustean harrapatu ditu erabaki horrek.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Mende bat igaro ondoren, Hamabosteko Rugbyak bide berriak hartuko ditu, horrela erabaki baitu Nazioarteko Federazioak, International Board-ek. Parisen ostegunetik igandera bilduta egon dira erakunde horretako kideak eta askok espero ez bazuen ere, Rugbya profesional bihurtzea erabaki dute. Egia esan, ezustean harrapatu gaitu gehienak, oraingoz ez baitziru-dien horrela gertatuko zenik.

Aitortu beharra dago, hala ere, txanponen hotsak aspaldi entzuna genituela; jokalariek modu batean edo bestean dirua jasotzen zutela, alegia. European, partidua irabazteagatik, selekzioan aritzeagatik eta beste arrazoiengatik. Italian, urrutira joan gabe, kanpotik ekarritako jokalariek soldata onak jaso eta jasotzen dituzte, Lynaghek eta Campesek esate baterako. Hego Afrikan, lehen kirola izanik, herrialdeetako selekzioetan jokatzen dutenek, soldata dute. Australian eta Zeelanda Berrian ere, antzeko zerbait.

Erabaki honek, beraz, legez-tatu egiten du jokalariek dirua jasotzea. Eskubidea izango dute taldeari soldata eskatzeko, selekzioan jokatzeagatik eta irudiagatik. Erabaki hori ez da bin-kulantea izango oraindik eta nazio bakoitzak bere araudia ezarri beharko du. Historia laburra eginenez, orain dela hiru hilabete jokatzen zuten Munduko 3. Txapelketaren inguruan sortu da erabaki horren zioa.

Ingalaterrako jokalariek esate baterako, Munduko txapelketan parte hartzeko dirua eskatu zuten, besterik ez bazen, publizitatearen truke. Horrek, berehalako erreakzioa izan zuen, Carling kändu egin zuten kapitain arduratik, gero atzera egin bazuten ere. Frantziako jokalariek ere bilera eskatu zuten Lapasset lehendakariarekin. Gainera, XIIIko Rugby profesionalak Munduko txapelketan ondo samar jokatzen zuena berehalaz tentatuko zuen, Tuigamala zeelandarra eta beste asko bezala.



Carlingek tinko eutsi zion dirua kobratzeko aldarrikapenari Mundialean.

Txapelketa jokatzen ari zela eta amaitu bezain laster, Australiako prentsa eta telebistako magnatea den Kerry Packer-ek liga profesional bat iragarri zuen eta jokalaririk onenak tentatzen hasi zen: Lomu, Piennar, Little, Wilson, Bachop, eta abar. Gauza bera ari zen egiten Rupert Murdoch, beste gizon indartsu bat. Udak aurrera egin duen heinean, XVekoari egin presioa areagotu egin da. Samoako jokalaririk gehienek XIIIkora pasatzea erabaki dute. Zeelanda Berriko Federazioak, Lomu, Little, Bunce eta hainbati kontratua egin behar izan die. Azkenean, Packer-ek bertan behera utzi du bere proiektua.

HEGO AFRIKAK ERAGINA IZAN DU Liga profesionalaren proiektua indarririk gabe geratu ondoren, zer-

txobait baretu dira gauzak, baina hara non, igandeko erabakia iritsi zaigun ezustean. Dirudienez, Hego Afrikako Federazioko buru den Louis Luyt-ek eragin handia izan du erabakian, Hego Hemisferioak izugarriko indarra baitu. Jakina, erreakzioak berehala izan dira. Argentinak, esate baterako, sekulako gatazka izan du kontu horrekin.

Felipe Ferrari da UAR-eko lehendakaria eta hau adierazi du: «Argentinan ez da profesionaltasunaz hitz egingo ni buru naizen bitartean. Irailaren hasieran bilduko gara Board-ek hartu duen erabakia onartzeko ala ez. Izugarriko aldaketa izango du filosofian eta espirituan». Ingalaterran ez dute profesionaltasun erradikala bultzatuko. Horrela, 2000. urtean guztiz profesionalak, Australia, Zeelanda Berria eta Hego Afrika izango dira.

Soldatak

■ **Zeelanda Berria:** Izen handiko jokalariek, 750.000 libera (18 milioi) denboraldiko 3 urtetan, gehi herrialdeko selekzioan aritzeagatik. Bataz besteko, 850.000 libera (20.400.000 pezeta) urteko, internazionalak. Lomuk, milioi bat libera jasoko du (24 milioi) 4 urtetan.

■ **Australia:** Selekziokoen, 800.000 (19.200.000 pezeta) libera jasoko dute denboraldiko herrialdekoa eta taldean kobratuko dutena barne. Bataz besteko, 820.000 libera (16.800.000 pezeta). David Campese internazionalak 2 milioi libera (48 milioi pezeta) kobratuko ditu.

■ **Hego Afrika:** Rugbya lehen kirola den Nazio honetan, 600.000 liberakoa izango da soldata (14.000.000 pezeta) denboraldiko, gehi, 100.000 libera (2.400.000 pezeta) herrialdeko selekzioan jokatzeagatik. Bataz besteko, 800.000 libera (19.000.000 pezeta) urteko. Piennar internazionalak, 1,2 milioi libera /28.000.000 pezeta) jasoko ditu.

■ **Ingalaterra:** Europako Nazio onenekoen, 400.000 libera (9.600.000 pezeta) urteko, gehi klubean jasoko duena, 80.000 libera (1.920.000 pezeta). Bataz besteko beraz, 700.000 libera (16.800.000 pezeta). Carling kapitainak, 1,2 milioi libera (28.000.000) kobratuko ditu.

■ **Frantzia:** Bidasoaz bestaldekoek, 50.000 liberako (1.200.000 pezeta) soldata izango dute, gehi Munduko kopan jokatzeagatik 70.000 libera (1.680.000 pezeta) eta klubekoa, 250.000 libera (sei milioi pezeta). Bataz bestekoa beraz, 320.000 libera (7.680.000 pezeta).

Europako txapelketa, urrian

K.A. / DONOSTIA

■ Ingalaterra eta Eskoziako talderik gabe jokatuko da aurten Europako klubien arteko lehen txapelketa. Hauak arazoak izan dituzte egutegiarekin, ez baitute tarterik aurkitu, nonbait, Liga, Kopa, V Nazioetako txapelketa eta selekzioak dituen konpromisuak betetzeko. Horregatik, aurtengoari uko egin eta datorren urtekoa jokatuko dute.

Ondo kostatako erabakia izan bada ere, azkenean hamabi taldek osatuko dute lehen txapelke-

ta hau. Euskal Herrikerik ez da izango eta Irlandako 4 herrialdeetatik hiruk hartuko dute parte: Ulster (Belfast), Euskadiren kontra orain dela bi urte jokatzen zuten Leinster (Dublin) eta Munster (Cork eta Limerchi). Beraz, Connacht ez da lehiatuko.

Frantziatik, Toulouse (Frantziako Liga eta Du Manoir Kopako txapelketa), Castres (Ligako finalista) eta Bordeleko Begles (Du Manoir-eko finalista). Galestik, selekzioko entrenatzaile berria den Alex Evans-ek entrenatzen duen Cardiff (Li-

gako txapelketa), Pontypridd (txapelketa) eta Kopako finalista) eta Swansea (Kopako txapelketa). Italiatik, berriz, azken urteotako bi onenak: Michael Lynagh jokatzen duen Trevisoko Benetton eta Berlusconiaren Milango Mediolanum. Errumaniatik, Constantza (Ligako txapelketa).

Hamabi taldeak, 3 taldeko lau multzotan lehiatuko dira. Lehenik, hiru jardunaldi jokatuko dira multzo bakoitzean, final-laurden modura. Gero, finalerdiak eta finala.

Faborito guztiek aurrera segitzen dute US Openean

NEW YORK

Estatu Batuetako Tenis Irekiaren lehen kanporaketan ez da ustekaberik izan, eta faborito guztiek, gizonetako zein emakumezkoetan, aurrera segitzen dute. Gizonetako txapelketa irabazteko bi hautagai nagusiek, Andre Agassi eta Pete Sampras estatubatuarrek, garaipen errazak lortu zituzten. Agassik 6-2, 6-2 eta 6-2 menderatu zuen Bryan Shelton herrikidea, eta Samprasek beste horrenbeste egin zuen Fernando Meligeni brasildarrekin: 6-0, 6-3 eta 6-4.

Zaletu eta adituen uste-tan, Agassik eta Samprasek jokatuko dute aurtengo EEBBetako Irekiako finala, Bi tenislariak txapelketa irabazteko asmoa dutela esan dute baina jarrera moderatuagoa, ez horren baikorra, agertu dute. «Horrelako prebisioak ziurtasunez egiteko goiz da, baina argi dago txapelketa berriz irabazteko inoiz baino motibazio handiagoa dudala eta uste dut gauza bera gertatzen zaiola Peteri (Sampras)», adierazi zuen Agassik. Il-do beretik hitz egin zuen Samprasek: «Partidu bakoitzean garaipena lortzea da helburua, eta orain nire kezka bakarra da Yzagari aurre egiteko prest izatea». Bi tenislariak paktu bat egin dute, 'Bi Lagunen' paktua deritzona, liskar dialektikoak alde batera utzi eta lehia pistetara mugatzeko.

Sergi Bruguera kataluniarra, John McEnroe tenislari ohiaren eskutik, 6-3, 6-4 eta 6-4 gainditu zuen Johan van Herck. Todd Martin, Thomas Enqvist, Marc Rosset eta Eugeni Kafelnikov ere aurrera segitzen dute.

Emakumezkoetan, Steffi Graf lehen zerrendaburuak berriz ere zailtasun ugari izan zituen Amanda Coetzer hegoafrikarra gainditzeko (6-7, 6-1 eta 6-4). Duela hamabost egun tenislari berberaren aurrean galdu zuen Grafek Kanadako Irekiaren lehen kanporaketan. Tenislari alemaniarra aitortu zuenez, dituen arazo pertsonal eta familiarrek eragin handia dute bere jokoan. Conchita Martínezek 6-2 eta 6-2 gainditu zuen bere partidua.